


ZARR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

291n. zenbakia
urterrilla 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**JESUS EJIPTO´RA KEXANA´KO
IRUDITEGIAN**

ABIZENAK

Onaindia: Bizkaian eta geien Markiñan. “Oian-” eta “aundi” batuta izan leiteke eta “baso aundia” esan gura dau. Bilbao’n 1759.

Ondarroa: Ondarra edo area ugari dagon lekua “-oa” toki-atzizkia da.

Oña: Burgos ko iparraldean dago erria eta an XIV giza-aldian an euskera egiten zan. Mungialdeko Meñakan be ba-egozan. “Mendiaren oiña” esan nai dau. Seguran 1374.

Oñarte-Etxebarria: Mendi oiñen artean dagoan etxe barria da. Legazpian 1383.

Oñatibia: “Oiñ-Ate-Ibia” “Mendi-oiñen artean pasalekua” Seguran 1390.

Okiña-Okiñena: Ogi-giña dagon lekua ta onen etxea.

Orbe: Gipuzkoan, batez Bergara-aldean eta Bizkaian leku askotan: Arrietan, Marurin, Elorrión. Orripea dala dirudi, baiña “gorbea”k be ba-dauko olako zerbait. Arrasaten 1530.

Orbezua: Zeanuri’n. “Orbe” edo orripe ugaria dauan lekua. Zeanurin 1745.

Ordorika: Arrietan 1739. “Ordo-” “avena” eta “-ika” toki-atzizkia. Bedar ori ugari dagon lekua.

Orduña: “Urduna” ura daukan tokia. Arrasaten 1446.

Orendain: Gipuzkoatik Naparroara. “Oren-” abereen janaria eta “-ain” gaiñean, toki-atzizkia. Bedarra dagon tokiaren gaiña.

Oreja: Gipuzkoan dago erria. Iñoz ez dau esan gura “belarri”. “Ore” bedarra dan ezker, “-xa” edo “-tza” ugaritasuna da. Toki bedartsua. 1566.

Orella: Oreja bera da, orduan bedarleku ugaria. Korella be orixe da eta Naparroan agertzen da 1722.

Ormaetxe(a): Ormaz egindako etxea. Artzaiñen etxea, teillabakoa, jaberik ez daukana. Bilbao 1651. Batzuk atxeagaz idazten dabe, latinean “forma” zalako.

Ormaza: Orma asko dauan etxea. Bizkaian 1659.

Orozko: “Oro” mendia dala dirudi, gerkeran lez, eta orrelan “mendi asko dagoan lekua litzake, baiña “oro” goroztia dala diño. Arrasaten 1461.

Ortiz: Naparroan 1300. Karrantzan. Nire ustez latineko “fortis” da eta abizen lez gero artua: “Santius fortis”. Ortik dator gero Fortunio.

Ortu: Abizen askoren oiñarri. Izan leiteke lateratik artutako “hortus”, edo euskeratik “oro/olo” avena.

Ortueta: Oñaten. Ortuak dagoen lekua. Elorrión 1575, Oñaten 1416.

Ortuzar: Zeanurin etxea, beste leku batzutan be bai. Ortua ba-dakigu zer dan eta “-zar” be bai. Ori da? Arrasaten 1546.

Orue: Sodupen, Zeanurin eta abar. Lurzatia da, etxea egitekoa be bai. Bilbaon 1638.

Osinago: “Osin-” ura geldi dagon lekua da, pozua eta “-aga” mugatzaille sendoa, orduan “ura geldi dagon lekua”. Bizkaian eta Gipuzkoan zabal dago: Arrasaten 1352, Oñaten 1451.

Otadui: Otea ezaguna da eta “-dui” ugaritasuna, ortik “-di”: “marasdui” eta “maasti” bat dira. Oñaten 1489.

Otegi (Otaegi): Otea dagon aldapa edo ikuspegia. Gipuzkoan zabal dabil. Urretxun 1652.

Otalora: Otearen lorea izan leiteke, baiña beste batzu “otaola” dala diño: ota asko dagon lekua. Elorrión 1590.

PERUTXO'REN ABESTIA

Ona emen gure irakurleak jakin-bearrekoa dan gai jakingarri bat.

Menendez y Pelayo, Marzelino jaunak "Origenes de la novela" bere liburuan idazki oargarri bat aurkitu daua diño: 1536n.urtean lenengoz irarri zan "Tercera parte de la tragicomedia de Celestina"n euskeraz dagoan abesti bat, ordura arte iñork aitatu ez dauan abestia.

1536n.urtekoa dala esan dogu, orduan Detxepare'ren gure lenengo liburua baiño lenagokoa da (au 1545'koa da).

Liburu orretan Perutxo agertzen da, Felides'en zaldizaiña, gazteleraz oso txarto berba egiten dauana, eta onek antza dagoanez (diño Menendez y Pelayo'k) euskeraz dagoan abesti bat abesten dau. Eta diño gaiñera: euskera dakienak aztertu dagiela abesti onek zer esan nai dauan. Bear ba'da ez dau eukiko esan-nairik eta gaiñera belarriz artuta dan ezkerro, abestia bera be txarto idatziko eban idazle toledotarrak:

Lelo lirelo çarayleroba	Ayt joan ganiraya
Yaçoe guia ninçan	Aztobizarra
Aurten erua	Esso amorari
Ay joat ganiraya	Gajona cahala
Astor usua	Y penas naçala
Lelo lirelo çarayleroba	Fator que dala
	Lelo lirelo çarayleroba.

Menendez y Pelayo'k lar zurregi jokutzen dau, "antza dagoanez euskeraz dagoala" diñonean baiña zuzen dago txarto idatzia egongo dala diñonean.

Argi dago "ninçan", "aurten", "erua", "joat", "usua" eta "naçala" itz euskaldunak dirala eta gaur be bardin erabilten dirala.

Baiña olerkitxu ori gaurko euskerara itzuli nai dogu euskaldunak ez gara batera etorriko.

Maitasun-olerkia da eta bertso onetan argi ez ba'lego be aurreko alkar-izketan argi agertzen da. Gaztelera trake-tsean.

Lenengo lerroa ez da besterik errepika edo estribilloa baiño. Gero aztertuko doguz "lelo-olerkiak".

"Yaçoe guia ninçan" beste au izan leiteke: "Iaz zoegia nintzan" edo "igaz ni lar zurregia nintzan". Ori diñogu, gero "aurten" datorrelako eta gero datorren "erua"ren parean doalako. Urrengo lerroa: "Ay joat ganiraya", onelan aldatu lei esaldi jatorra billatzeko: edo "Ay joat gabi-raia" edo "joan jat gabillaua (txoria)". "Ayt" onek gero daroan "t" gaiñeratua litzake.

Urrengo lerroa "astor usua", "ator usua" izan leiteke eta gabillauaren aurka usuari dei egitea litzake.

"Aztobikarra" ez da ulertzeko erreza, baiña gabillauaren aurka dagon irain bat dala dirudi. Saia'ri esaten jako "aiztore" Zuberoa'n eta "c" dagoen lekuan "ç" izan ezkerro, "astobizarra" litzake, gabillaua iraintzeko esana.

"Esso amorari", "uso amorari" izan zeitekean eta ori ulertzen da.

"Gajona chala"errez ulertzen da zuzen idatzita "gaiso nazala" izan ezkerro. Bardin antzekoa da urrengo: "y penas naçala".

Eta azkenez daukaguna "Fator que dala", zuzen idatzi ezkerro "jatorkidala" izan leiteke.

Lelo lirelo, zari leroba	Ai, joan jat gabillaua
Igaz zoegia nintzan (zurre-gia)	Astobizkarra
Aurten erua	Uso amorari
Ai, joan jat gabillaua	Gaiso nazala
Ator usua	Penaz nazala
Lelo lirelo zarai leroba	Jatorkidala
	Lelo lirelo, zarai leroba

Ori orrelan izanik, ona emen olerkitxua ulertzeko eraz: "Lelo" zer zan jakin gura geunke eta eritxiak agertuko doguz.

Batzuren ustez euskaldunen jainko bat zan, baiña nondik ateratzen dabe ori? Ez txanpon batetik, ez idazki batetik, ez aurrekoak esandakotik...Nondik?

Orain be esaten da "Ori betiko leloa da" eta esaldi orretan "estribillo" dala dirudi. Bardin esaldi onetan "Geroa, alperraren leloa". Ara Gero liburuan Axular'ek diñoana: "Hango kantuak, leloak, eta bizkarioak". Or be antzeko esangurea dauka.

Kantabroen liburu zarretan agertzen da Lelo, Tota eta Zara'ren alegia. Arritzekoa Perutxo'k be zarai agertzea. Baiña geroagokoa da alegia eta "Lelo" XIII gizaldian zabal ebillan.

Mikoleta bizkaitarrak gorrotoa dautse "lelo" olerkiai. Ara zer diñon:"Alde batera itzi daiguzan lelo, lelori koplak, jaietan neskak abestu dagiezan. Oneik ez dira sartzen gure olerki zentzuzkoetan".

Ibarguen'en ustez, "Lelo euskaldunen buruzagi ausarta zan eta bera ez egoala Zara'k Tota Lelo'ren emaztea lilluratu eban eta Lelo etorri zanean maitemindu biak il egin eben. Batzarrak Lelo goratu eban eta orregaitik agertzen da bere izena olerki guztien asieran. Baiña oinarri gabeko eritxia da.

Arazo au argiago ta sakonago ikasi nai ba'dozu, irakurle, ikusi RIEV'en IV alean, Urkixo'tar Julio'k dakarrena.

MENENDEZ Y PELAYO'REN BARRIAK

Idazle batzuk baztertuta dagoz, onak izan arren, idazketari ez dagokiozan zio batzukaitik, esaterako Jose Maria Peman errege-zalea zalako edo Menendez Pelayo eskoitarra zalako.

Baiña euskaldunok zio asko daukaguz Menendez Pelayo onartzeko eta orretarako lagunduko dau gaurko idaz-lantxu onek.

Esan dogu "Perutxo'ren abestia" Menendez Pelayo'k aurkitu ebala Irugarren Zelestina liburu aspergariaren barruan eta berak euskerarik ez ekialako, euskeraz dagoala antza artu eutsola. 1911n.urteko urtillaren 19n.egunean il zan Martzeliño Menendez y Pelayo. Ori dala-ta Urkixo'tar Julio'k (RIEV 6,265) auxe diño: Ziur dakigu menendez y Pelayo'k gogoz jarraitzen ebala RIEV'en bidea. 1911n,urtean eskutitz au idatzi eutson Urkixo'tar Julio'ri (euskeratu egiten dogu):

"Jaun maitagarria:

Omen aundi lez artu dot zuk egin daustazun eskintza "Irugarren Zelestina eta lelo'ren abestia" azterketa

ederrean. Ez neban uste nik zori utsez egin neban olerki zarkitu onek, olako filoloji-azterketa jakintsuak egiteko aukerea eskeiñiko ebanik, eta agiri ori ain garrantzizkoa izango zanik, kantabriarren guzurrezko abestia bere lekuan jarteko aukerea eskeiñiko ebanik.

Nik beti uste izan dot egi aundia dala au: ez dagoala liburu ain txarrik zeozer ona ez daukanik, eta, egia esan, gitxi izango da Irugarren Zelestina au dan bestean iñozoak diranak.

Aukera au artzen dot zuri eskerrak emoteko, bere sasoiari artzen dodan RIEV emoitze ederra emoten daustazulako eta zorionak emoten dautzudaz, edestia maite daben guztiak egingo daben antzera, argitalpen au sendoa ta jakinbidekoa dalako eta bear-izan aundia eukan ikasketa-arlo bateri zuzenbidea emon dautsolako.

Zure adiskide:

M. Menendez y Pelayo'k"

OLAZAR'tar MARTIN'ek

EUSKALERRIA ERDIAROAN

Gauza gitxi dakigu gure erdiaroko edestiari buruz: IX gizaldian agertzen dira leenengoz Bizkaia eta Araba izenak eta XI'ean Gipuzkoa.

Euskaldunak auzoetan alkartuta bizi ziran, ermita baten babespean eta euren arduraduna urtero aukeratzen ebela. Ez dakigu noiz asi ziran goragoko maillako batzarrak, Gernika'koak-edo.

Auzoak 4'tik 10 etxerakoak ziran eta ibarretan alkartzen ziran. Araba'n kuadrillak ziran eta Bizkaia'n merinaldeak.

XIII gizalditik daukaguz baserriak eta euskaldunak onak ziran salerosketan eta itxas-lanetan. XI gizalditik XIII'ra atzeratuak gara baiña XIV gizaldian, guztiak esaten jaken bizkaitarrak, eta oso trebeak agertzen dira Europa'ko kai guztietan. Ori izan zeitekean aldi orretan 88 uri sortzen dira, 21 Bizkaia'n.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



**ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

EL CORREO-REN GUZURRA

Leengo asteko atentaduak eragin dauan samintasuna agiri-agirikoa da, batez be, ildakoaren urkoetan zein zau-ritu eta euron senitartekoetan. Baioake, bada, lerrootarik besarkada bero andia danori.

Arkaitzen aita, Jose Mari Otazua, orain dala ia 15 urte-rik ona ezagututzen dot. Alkarregaz egin genduan bear fabrika beratana, arik eta berak buruko odoljariora izan eban arte. Ebakuntza pare bat izan ostean, baina, gorpuz-aren ezkerreko alderdia ia %100ean elbarrituta lotu jakon. Urtebete garrenean betiko baja eman eutsoen. Amabi urteotan gaixotasun orren aurka ikusi dot gogor burrukan. Ondorioz, ordurik ona ezin dau autorik gidatu eta soinekoak janzteko laguntzinoa bear izaten dau.

Tragedia gogorra bizi eben familian orduan. Tragedia gogorra bizi izan dabe barrian oraingoan be. Semea aten- taduan naastuta egon eta antxe ilda gelditukeran, eurakait- tik edozer esango ebena jakitun egon dira aita-amak. Daborduko batzuk edozer esaten asita dagoz egon.

Aor non, El Correo Español dalakoak Jose Mariren ganeko upealango guzurra argitaratu dauan: "*eizan egin daroala eta ainbat eskopeta euki dituala Errioxako etxean*". Bearbada, erakutsiezina dana erakusteko edo. Egia, baina, oso bestelangoa da: egundo be, ez bata ez bestea. Daukan gaixotasuna daukala, are txikiago. Bake- zale eta bakegin izan da beti Jose Mari. Alan dala eta, min-minduta dago familia. Arkaitzen aita-amen izen ona loituteko aalegina egin dabelakoan dagoz etxeakoak. Edo- zer esatea baliagarritzat emon eta merke jake, antza.

El Correo Español-El Diario de la Falange izenagaz jaio zan egunkari ori gerra ostean. Nazionalismo ultraes- painolaren ikurra izan zanak, izenak izen, alantxe dirau, aurki. Ez dot egunkari ori inoz erosi, ezta egundo eroste- ko asmorik be.

Iniaki MARTIARTU
BAKIO

ANTONIO MARIA ROUCO VARELA,

MARID'ko GOIGOTZAI eta EXPAÑI'ko GOTZAIAREN BURUZAGI KARDENAL JAUNARI ERASPENEZ.

Jauna, zure kargu gurenari zor zaion eraspenez itzezin nai dizut, baiña losintxakeririk gabe, egiari zor zaion maitasunez.

Atzo, Azillak 17, azalpen arrigarri batzuk egin zenituan. Ez daitezke erantzunik gabe gelditu.

Zure izketa orren barruan, izkutaturik baiñan aski nabari, Ibarretxe gure lendakaria dagerkigu etsai bezala.

Españi guzia daukazute ezurretaraiño bildurturik, "el Plan de Ibarretxe" dala-ta.

Izan ere, Egitasmo edo "Plan" ortako atal bakoitzari arrazoizko erentzunik emateko gai ez dalako, Aznar Españi'ko lendakariak sutan jarri bait du españiarren nazionalis- mo zoroa, Egitamo orren aurka Españi osoaren itxarkun- dea, "*la movilización*", eskatuz.

Berealaxe erantzun diote, jakiña, bere Jaurlaritzako ministroek Ibarretxe'ren aurka bakoitzak aal izan dituan ganoragabekeririk izugarrienak esanez. Gezurra ta ustekeria lotsarik gabe jaurtiz erantzun diote leialki izparringi españia- rrek ere: danek! Eraberdinean erantzun diote apal-apal Españi'ko sindikato motelek, eta industri-buruek, epailleek eta "oposizioko" alderdiek, "PSOE" auletik asita. Eta Autono-

mieta'ko Lendakariak. Katalaunikoa izan ezik. Eta... ¿nork ez Españi guzian?

Eliza bakarrik falta zan: Eliz españiarreko Gotzai jaun onu- ragarriak. Baiñan ziur negoan, auek ere laister agertuko zutela burua, Aznar Españi'ko Lendakari falangistaren alde. Eta, - sinista eidazu-, danen aurretik ¿zuk noiz itzegingo zai negoan!

Rouco Kardenal Jaun altsua: Lotsagarriki ibilli ziran Franco'ren garaien Españi'ko gotzaiak, eta berdin-berdin zabailtate zuek orain.

Orregatik zuk atzo esandako orrek: alegia, jendeari "*beti argitasuna ematen, ots, "en la iluminación*", saiatu zerate- lako errek, ez du, Euskalerrian beintzat, batere baliorik, Ezta munduko beste toki askotan ere.

Alderantziz egi bera diozu gotzaiak "*la nueva convivencia en el marco constitucional*" onespentzeko, gotzaiok beti gerturik egon zeratela diozunean.

Baiña, Kardenal jauna: ain maite duzun Kostitutzio ori argi-argian kristautasuaren etsaia da eta zearo terrorista.

- Terrorista da, bere 8'garren atalean Españi'ko Laterriaren osotasuna, "la integridad", ejertzituaren eskuetan uzten dualako.

Ori, noski, j ez bait da Galizi'ko, Katalauni'ko eta, batez ere, Euskalerriko abertzalei beren Aberriaren askatasuna lortzen laguntzeko sortua izango!

8'garren atal orrek, Rouco jauna, kañoi, tanke ta egazkiñ, su, tiro, ta bonba, Espaiñi'ko gudarozte osoa gaiñera etorriko zaigula adierazten digu, ostera 1937'an Gernika bezala Euskalerrri osoa kixkalirik uztera.

¿Ez al da ori abertzalei aberri yaretzen asteko gogoa sortzen bazaie ikara, "TERROR" edo "BILDURRIK ERIOGARRIENA" sortzeko asmatua izan?

Badu zuen Kostitutzio orrek beste atal txatxu bat ere: 155'garrena. Atal ortan Espaiñi'ko Jaurlaritzari bere gurarikerira edozein autonomi ezerezteko aalmen orokorra ematen dio. Aznar'ek gaur bertan ezereztu dezake, nai ba'du, Euzkadi'ko autonomia: "*El artículo 155 está en la Constitución, está ahí*", -esan zuan Javier Arenas Espaiñi'ko bigarren lendakariordezkoak ill onen 17'an-, y nosotros a dia de hoy no hemos contemplado su aplicación", baiñan "*el Gobierno Español no descarta utilizar cualquier instrumento del Estado de Derecho que recoge la Constitución Española*".

¿Orri ESTADO DE DERECHO diozute? ¿Eskubide guztiak Madrid'ko Jaurlaritzaren eskuetan uzten dituan Laterria ¿"Estado de Derecho" izan al daiteke?. ¿Non uzten dituzute Autonomi oietako jendearen eskubideak? ¿Jostaketan al gabiltz? ¿Gu zer gera? ¿Espaiñi'ko Jaurlaritzaren artaldeko arkume iñozoak?

Zuen Kostitutzio ori, Kardenal jauna, ez-kristau ta terroristaz izateaz gaiñera, nazi-totalista ere ba'da.

Pozik izenpetuko zuten Musolini'k, Hiler'ek eta Franco'k. Baita --erlijioari dagokiona kenduta-- Lenin'ek, Stalin'ek eta Mao'k ere.

"*El grave desafío del terrorismo*" aipatu duzu. Bai jauna; terrorismoa "**grave**" ez ezê "**gravísimo**" ere bada, baiñan zuk, Espaiñi'ko kostitutzio ori ain kuttunki babesten duzulako, zuk, Rouco jauna, ez duzu beste iñongo terrorismoaz itzegiteko eskubiderik.

Laterriak baiño azkoz garrantzi geiagokoak dira Erriak. Zuk ordea ¿zer esan nai diguzu? ¿Laterriek, askatasuna nai duan ERRI bat zanpatzearen, indarkeririk gogorrena erabiltzeko eskubidea badutela, eta ERRI zanpatuak ez?

Orrek ez du zentzurik:

Indarkeria, ludi guztiko gizartean, j ez bait du iñork erabilli bear! Gizakumeon artean, are geiago kristauon artean, demokratikoki ta alkarrizketa zintzoaren bidez zuzendu bear ditugu arazoak.

Barkatu, Kardenal jauna, baiñan ori dala uste dut Aita Santuen irakasbidea. Gaiñera:

- Espaiñi'ko kostitutzio ori ez da kristaua. Astunki Elizaren dotriñaren aurka dagolako.

Elizarentzat gizarteko pekatuak aundiena abortoa da: amaren sabelean ume errugabeen arailketa.

Ez dago ori baiño terrorismo aundiagorik.

Espaiñi'ko zure Kostitutzio orrek, ordea, yare uzten du abortogintza legez baimentzea. Orrela, jzillegi da Espaiñi'n abortoa!, naiz Aznar Jauna ta bere Jaurlaritzaren eta PP alder-

di osoa Aitasantua azkena etorri zanean, aren aurrera danak ain kristau zinzoak agertu!

Aznar'ek geiengo osoa du Madrid'ko Parlamentuan. Nai izatea naikoa luke abortogintza era bat debekatzeko.

Baiña ez du nai.

Zergaitik? jBotoak galduko litukelako! seguruaski. Balio geiago ematen dio, itxuraz, auteskundueta autarki bati umetxo baten biziari baiño.

Arazo ortaz ¿Elizak al du zerbait esan bearrik? Isilik bait zaudete danok.

Era maitetsuan eta eraspenki aipatzen duzu beti Aitasantua. Maite duzula, argi ipintzen duzu. Baiñan Aitasantua, emen pakea lortzeko alkarrizketa leiala bear dala esan dizute beti. Espaiñi'ko gotzaiok ordea ez zerate oraindik alkarrizketaz mintzatu.

Bein baiño geiagotan pentsatu izan dut, Espaiñi'ko gotzaiok, zuek oartzeke, zuen kontzientzipean, Ama Eliza baiño "la Madre España" ez ote duzuten geiago maite.

Dirala illabete batzuk, dokumentu bat idatzi zenuten Madrid'en batzarrean bildurik. Bere baitan akats mardulak zekarzian gutuna!

jOrregaitik ez zuten Euskalerriko gure gotzaiok gutun ori izenpetu! Alare zu atzo orduango bidetik agertu ziñan berriro. Okerragoa dana, oroipen txarreko gutun arek gaur orduan baiño balio gaiago duala esan zinguzun, gaur zure Kostitutzio laztan au bere 25'garren urtea betezerakoan "*ensombrecido por graves cuestionamientos*" aurkitzen omen dalako.

Or, Rouco, izkutuan Ibarretxe'ren aipua dagizu. Baiñan Ibarretxe'ren egitasmoek ez dute, berez naiko zikiña dan Kostituzi ori lausutzen. Alderantziz, arazoa argitu egin nai dute; eta argitu egiten dute.

¿Zergaitik ez diozute Espaiñi'ko Erriari ez zuk ez Aznar'ek ez beste iñork argi ta garbi esaten Ibarretxe'ren egitasmoko zer ataletan aurkitzen dan okerkeria?

Ori egiteko gai ez zerate-ta..., Espaiñi'ko jende gaixoaren nazionalismo ttonttoa puztutza jo duzute!

"*El terrorismo*" berriro, ta "*el nacionalismo totalitario*" gaitzesten dituzu. Baita ETA'k ildakoen senideak ere: "LAS VICTIMAS".

Ni ere "viktima" naiz, Kardenal jauna.

Nik ere ikusi bear izan dut Tolosa'ko nere etxean, ETA'ko pistolariak isuritako odola. ETA'k il bait zuan koldarki, atzetik tiro emanez, Ramonita nere arrebarren senarra. Infanteri'ko Komandantea. Euskera ikasten ari zana, aurreneko auteskunde yareetan bere autarkia EAJ'ko alkategaiari eman ziona, ill zutenean ere Euskara ikasteko liburu bat berekin zekarkiana!

Nik ordea ezin jasan izan dut beñere Espaiñi'ko Jaurlaritzak, alderdi politikoez eta izparringiek "viktima" gaixoezin darabilkiten jardunkera. Politikagintzarako "viktimen" aipua ederki datorrela oartu diralako bait darabilkete ezpainetan aspertzeko "las victimas" itza. Aipaketa sarritsu orrek botoak ematen dizkiela oartu dira-ta, politikalarri bezala ildakoen aragiz gizendu ta indar-artu nai dute, politikagintzaren arloan beti nagusi izaten jarraitzeko.

Beleen antzera aragi-ustel-jaleak dira: "carroñeros",

Nik, ordea, ez dut nai, ezkon-anaia izateaz gaiñera lagunik aundienetako bat nuan euskaltzale aundia izan zan gizon bikaiñ aren gorpua janez polika-mailetan gora igotzeko asmotan oñor ibiltzerik. ¡Ez dut nai!! ¡¡¡EZ!!!

Ildakoei eraspaina ta otoi-tza zor zaizkie, eta ildakoen senideei, "VICTIME"i, eraspén kuttuna, ta laguntza.

ETA'ko ero gaizkille oiek ez dira oartzen "viktima"k Españi'ko Jaurlaritzari ederki datozkiola. Aznar ere ez dirudi oartzen danik kartzeletan orrenbeste preso estu espe-txeraturik eukitzeak on aundia egien diela ETA`ren giroko gure sasiabertzale erdi-marxistei.

Matematiken araura zuzena dela iruditzen zait onoko ekuazio edo berdinketa au:

Victimak : Aznar'i :: Presoak : Erribatasonari,

(Victimak Aznar'i bezala Presoak Erribatasona'ri)

Aznar jaunak milla dirala esan digu ETA'k ildakoak. Millaka ta millako ta eunmillaka asko dirala --erantzungo diot nik-- Franco'k erailt ziuanak. Aietaz, ordea, ez du beifñere iñork ezer esaten. Ezta zuk ere, Rouco jauna.

Aien eraiketa ¿ez ote zan egiazko terrorismo ikaragarri bat izan? Edota. alako sarraski izugarri ura "a los rojo-separatistas" alaitasuna ta poza emateko egin ote zuan Franco'k? ¿Ain koldarki Franco'k eraildako aien senideak ¿egiazko "viktima" ez ote dira?

Barka eidazu kardenal jauna: ¿Nondik atera duzu "inadmissible dala pretender unilateralmente alterar este ordenamiento jurídico"? ¿Zer nai duzu, Ibarretxe Mon-loa'ko jauregira joanda, an, belauneko, bere asmoa aurrera ateratzeko Aznar berari laguntza eskatzea? Ez legoke gaizki Aznar ortara etorriko ba'litz.

Ea zuk ekartzen duzun!!!

Auzikideetako bat amore-ez-ematekotan baldin ba'dago, auzia konpontzeko, besteak naitanaiez "**unilateralmente**" egin bearke ditu saio guztiak.

Kanada'k ezezkoa damaiolako, Kebek "**unilateralmente**" ari da lanean askatasuna lortzeko, Ori **inadmissible** al da? Unilateralmente ekin zuan Sortaldeko Timor katolikoak Indonesi musulmanaren aurka. Ekintza ura ere ¿"inadmissible" izan al zan?

Beti ari izan dira, ari dira, ta ari bearke dute "**unilateralmente**" askatasuna nai duten erriek. Ala ibilli zan Españi ere Napoleon'en Frantzi'ren aurka: "unilateralmente".

Ekintza "**unilateral**" oiek "**inadmisibles**" al dira? ¿Ez?

Ta...Euskalerrriak gaur edo biar askatasuna lortu naiko ba'lu ¿zergaitik izan bearke luke "**inadmissible**" Euskalerrriaren ekintza orrek? Europa'ko Erririk zaarrena ¿ez alda beste erri guztiak bezain ERRI?

Bai?

Au da bâ Elizaren dotriña: Erri batek baduala berak nai duan bezala bere politikazko izakera eratzeko eskubide betea.

"*Es necesario respetar y tutelar el bien común de una sociedad pluricentenario*". Ori ere jaurti diguzu. Baiñan ori, erdi-egia besterik ez da; ots:, gezurra baiño okerragoa, baiñan españitarren nazionalimoa berotzeko arras egokia.

Ori esatean Españi'ko Laterria daukazu zure buruan.

Baña:

- "**Pluriseccular**" izateak ez dio Españi'ko Laterriari euskalerrriko naia ukatzeko eskubide geaigorik ematen.

- "**Pluriseccular**" izateak ez dio indarririk kentzen Elizaren dotriñari. erri batek baduala berak nai duan bezala bere politikazko izakera eratzeko eskubide betea

- Gaiñera, Españi'ko Laterria ez da "**multiseccular**". (Zillegi bekit edestia-zear, saltoka ibillaldi labur bat egitea):

- Errege katolikoek ez zuten Españi'ko Batasuna egiterik pentsatu ere.

- Aragoi ta Gaztela, "unidos en la Corona" edo Erreiñu-Buruntza batean alkaturik, bi Laterri yare izan ziran XVIII mendea arte. Biak alkartzeen zituan buruntza ori Gaztela'koa aiña zan Aragoi'koa.

- XVII mendea amaitzerakoan Aitasantu batek salbatu zuan alkarketa ori; ta, orrela, berak salbatu zuan laister egitekoa zan "la Unidad de España". II Karlos zan Gaztela'ko ta Aragoi'ko erregea, Semerik ez zuan, eta Aragoi'ko ta Gaztela'ko Laterriak osoro bereiztea erabaki zuan, bata Austri'ko Karlos bere illobari eta bestea Felipe Borbon bere beste illobari emateko. Aitasantuari eskatu zion aolku, ta Aitasantuak bi Laterriak ez, arren, bereizteko eskatu zion. (Buruz ari naiz idazten-da, ez dut Aitasantu aren ize-nik oroitzen. XII Inozentzio izan zalakoan nago). Baiezko erantzuna eman ba'lio, gaur Aragoi ta Gaztela bi Laterri bereziak izango ziran.

(Ori, agian, ez zenuan jakingo, Rouco jauna, Españi'ko edesti-liburuetan ez bait da orrelakorik esaten).

- XVIII mendearen asieran V Felipe Borboiak egin zuan "La Unidad de España, Aragoi'ren erreñutasuna ta askatasuna ezereztuta Gaztela Españi osoa biurtuz.

Alare yare jarraitu zuten Araba'k, Naparroa'k, Bizkai'k eta Gipuzkoa'k. Pentsatu zuan oiek ere zapaltzea, baiñan ezezko aolkua eman zioten, ikaratuta, aolkulariek

- XIX mendearen azken aldera biurtu zan Gaztela Españi osoa, Cánovas del Castillo'k lau Eusko-Laterri oien LEGE ZARRA indarkeri zakarrez ezereztuta, lauak Españi-pera sartu zituanean. Ordurarte ez bait ziran Españi'rekin alkaturik egon. Soilki Españi'ko Buruntzarekin egon ziran bâ alkaturik. (Ori ere ez da erakusten Españi'ko eskola-liburuetan).

Ona bâ, Kardenal Jauna, zerbait arrigarria: Lege Zarra edo Fueroen aroan ez zan Españi'n "Problema Vasco"rik izan. Españi'k, XIX mendean, Frantzi'tik artu zuan liberalkeri zentralistaren bidetik Lege Zarrari ekin zion bezain laister sortu zan, ikaragarri, gaur oraindik amairik ikusten ez zaion "el Problema Vasco" odoltsua.

Ostera Euskalerrriari bere-bereak dituan FUEROAK itzulita, Kadiz'ko Kostituzioaren bezperara salto egitea ¿ez ote litzake pakerako bidea?

Saia zaitez, On Antonio María Rouco Varela Kardenal Jauna. Ea zerbait lortzun duzun. Euskalerrriak ez zinduzke sekulan aztuko.

Agur Goigotzai Kardenal Jaun Txit Agurgarria. Zure aurrean apalki,

Latiegi ta Eraso'tar Bixente, Apaiza.

(945 22 00 50)

JUAN DE LA KOSA

Euskaldunontzat argi dagoan gauzea da Kolon'ek eroan eban "Santa Maria" itxas-ontzia euskalduna zala eta itxas-ontzi orretan nagusi zan Juan de la Cosa be esukalduna zala.

Juan de la Cosa au 1460n. urtean jaio zan, ez dakigu bizkaitarra ala kantabriarra zan, ala gauza biak batera, baiña bai ontzi orretan ugazaba, jabea eta Kolon'en urren-go agintaria zala eta aldi aretako lur-irudien egillerik onena be bai. Beronek egin eban Ameriketatik etorrira, munduaren irudirik ezagunena Amerikak barru zirala.

Gaiñera, berau da aldi aretako euskaldunen eta beste guztien jokabideak argitzeko eredurik onena.

Antza dagoanez, Bizkai'ko Enkarterrian jaio zan baiña jatorriz Santoña'koa zan. Ziur dakiguna auxe da: Isabel Katolika eriotxonak eta Bizkai'ko andrea zanak "Juanxo Bizkaino" esaten dautsola. Antzeko berbak esaten dabez Kolon'ek eta Bartolome Las Casas'ek be.

Juan de la Kosa Bizkaitarrak euskeraz egiten eban eta itxas-arazoetan oso trebea zan. Atan ibilli be egin zan gazte-gaztetatik, lenengo Europa'n salerosketan. Lan onetan dirua aurreratu eban eta 1490n. urte-inguruan itxas-ontzi on baten jabe egin zan. Orixe izan zan gero Kolon'ek "Santa Maria" izenagaz ezagutuko ebana. Ontzi orretan joiazanak "geienak bere lurraldekoak" zirala diño Kolon'ek berak.

Zazpi euskaldun joiazan ontzi orretan, maestre lez, agintzen irugarrena, Lekeitio'ko Txantxu agertzen da, nor-tasun aundiko gizona eta besteak baiño gorago agertzen zana. Izpaster'ko Txomin Antxia tonelgilea, Natxitua'ko Martin sukaldari-laguna, Erandio'ko Lope de Aresti ontzi-giña, Arana'tar Diego kordobarra baiña jatorriz euskalduna, Kolon'en senidea eta Lekeitio'ko Txomin.

Euskaldunen talde au ez zan besteen antzekoa: Ondo alkartzen ziran eta euren euskaltasuna ez euken saltzeko. Eta izaera au gizaldietan agertuko da alkar-lanetan, bear-izenetan alkarri laguntzen, eta taldekoak ez diranai begiratzeko era berezi baten. Euskereak berak be orretarako laguntzen dautse, batez besteak ulertu ez egien.

Ori agertzeko aukerea "Santa Maria"ko talde onek laster emongo dausku: 1492n. urteko urtarrillaren 6'an izan zan; ordurako Kolon'egaz egindako itunean agertzen diran 750 leguak baiño asko geiago eukezan eginda, eta Kolon'ek jentea baretzeko gitxiago zirala esaten eban, baiña euskaldunak matxinadea sortu eban eta Kolon'eri itxasora botako ebela esan eutsoen.

Larri urten zan Kolon beste ontzi bietako kapitaien laguntzaz. Eta euskaldunak besteen laguntzarik euki ez ebelako, atzeratu egin ziran, epaituak izango ete ziran bildurraz.

Baiña urrillaren bederatzigarren egunean, ez zan olakorik izan, 1000 legua eginda egozan eta iru ontzietakoak batuta euskaldunai jarraitzea erabagi eban.

Kolon'ek bitarteko bat aurkitu eta bakea eskatu eban, bitartekoa Martin Alonso Pinzon zala: Iru egun geiago eskatu ebazan eta Pinzon'ek lortu eban matxinadeak atzerantza egitea. Egun bi geroago ikusi zan lenengoz lurra.

Abenduaren ogeta lauan, Gabon eguna, koralezko ugarte zorrotz artean ebiltzan eta "Santa Maria" ontzia urperatu egin zan. Lemazaiñak sukaldari-lagunari itzi eutsen lekua. Oker aundia au arrisku aundi aretan. Eta biak Juan de la Kosa 'ren menpekoak ziran ezkerro, onen aurka berotu zan Kolon. Onen ustez, euskaldunak itxas-ontzia itzi egin eban eta batel baten iges egin.

Kolon'ek ontziaren olakaz "Gabonetako toki babes-tua" edo "Fuerte de Navidad" egin eban. Andik urten eban Cipango'ren billa eta bide batez urre-billa. 39 gizon ziran. Eta euren artean euskaldunak. Kolon Gaztela'ra joan zan, gero bigarren ostera egiteko.

Kolon'ek bigarren osterea egin arte ez egoan gizon arein barririk. Beste ontzi bietan be ba-egozan euskaldunak, batez be giputzak.

Lenengo osterea amaitu zanean Juan de la Kosa'k urperatutako bere ontzia ordaintzea eskatzen dau eta geroago ondo ordaindu eutsoen.

Kolon'en bigarren osteran be, beragaz doa Juan de la Kosa, baiña zalantza dago lengoa bera ala beste bat dan.

Bigarren ostera onetan eldu ziranean zertan ziran Gabonetako Toki Babestu aretan geratu ziranak? Zori txarreko ondorenak an izan ziranak! Eurak gogor artu ebezan inditarrak urrea kentzeko, zemai ikaragarriakaz, eta urrea eta euren bitxiak emon bear izan ebezanak alkartuta zapuztu eban Toki Babestu ori eta guztiak il ebezan. Euskaldun bat izan zan Ameriketari il eban lenengoa. Orretarako bide gezi pozoitu bat izan zan. Onexek izan eban lur areitan lenengoz illobi kristiñaua.

OLAZAR'tar Martin'ek

OTO ETA POTOTO

BOSNA ERRIAL

Oto'ren alaba panpoxa kandela saltzen. Argi-endar gutxi eta kandelak eraman bear. Pototo'en emaztea dendara kandela-billa:

- Bosna errial.
- Bosna errial oso garestiak dira.
- Lau jarriko dizkizut duro batean.
- Lau duro batean? Orrela konpromete; ipiñi laurak.

(Duro batek ogei errial zitun: lau bosteko. Argia neskatilla eta saltzaille abilla).

LETUZAK

Oto'ren laugarren semea itz-totela degu. Ikastolan dabil, Amerika'ko berriak ikasten: indio eta españolen arteko burrukak:

- Nor zan Inkeren gudari-buru?

Koxme zutik eta zerura begira, ez bait zuen gudari orren aztarnik ere...Historiaren programa eskuetan dauka, aldamenean duen Pronxio'rena. Pronxio, mutil azkarrak, programan bertan idatzi ditu buruzagien izenak. Koxme'k, larritasu aretan, jetxi ditu begiak zerutik, Pronxio'rengana, laguntza eske eta esaten dio ixilka:

- Zein dek?
- Letu zak!

Eskuetan duen programan idatzita bait zegoen izena. Ori entzutean, lasaitu zaio Kosmetxo'ri biotza: burua arro jaso eta indar guztiakin onela dio:

- Le...le...le...tuzak!

SUPOSITORIOAK

Anjinakin makalduta zebillen andre Joxepa; senarra, berriz, urduri andre Joxepa oian ikusita. Izan ere, andre gabe, sukalde aldean nola moldatu ez zekien Oto jaunak.

Sendagillea ekarri zuten etxera. Errian medikutxo bat besterik ez zegoien orduan. Sendagille gaztea eta botika berrien laguna.

Antxiñatik lepezamarreko gaitz oiek sendatzeko, zer erremedio erabilili bear ziran, jakiña zan: galtzerdi batean irin-saia sartu eta zamaren kontra ipiñi, azalak kiskaltzeraino...Ala bestela, ur beroakin konpresak toki berean.

Ortik kanpo, asun-ura odola meetzeko.

- Supositorio auek artu bat goizean, bestea eguerdian eta irugarrena apalondan...Biar etorriko naiz berri jakitera...

Ori esanda joan zen sendagillea.

Agoa iriki, andre Joxepa... Ederki! Oso ederki! Bikain! Efeto ederra egin dizute supositorioak.

- Efeto ona egingo zioten, baña ez ziran eder-ederrak artzeko. (Oto'k aldamentetik)

- Ezetz?! Zer ba?

Zera...Joxepa'k atzo, goizeko supositorioa artzeko, bota zitun baita bar gauko babak ere...

- Baña, ori ezin liteken gauza da...
- Berorrek probatu al ditu?
- Oraindik, ez.

- Probatu arte, obe ez itzik egitea. Joxepak, nolakoak ziran atzoko bala txiki aiek?

- Oso miñek...kostatu zitzaidan eak tragatzea!

LAU MILLA OGIKIN

Aita Laureano, bizardun praille kaputxinoak, berealdi-ko sermoiak egiten garizuma aldean. Oto, kristau zintzoa, an joaten zan aurre-aurreko bankuetara, sermoilariari obeto entzuteko.

Sermoilari bikaña izan arren, bikaiñenak ere noiz edo noiz, erruren bat izaten du...Eta egun aretan Aita Laureano errudun gertatu zan:

- Lau milla ogikin, bost gizonei eman zien jaten Jesus'ek.
- A zer gauzea...!Ori neronek ere egingo nuke: lau milla ogikin bost lagunei jaten eman...?

Aita Laureano, beltzarana izan arren, ondo gorritu zitzaizkion bizar-sustraiak! Baña, Oto;k arrazoi.

Urtea pasatu zan. Garzuma eldu. Berriz ere, Aita LAureano sermoilari. Sermoilariak joan zan urteko leloari eldu zion.

- Bost ogikin, lau milla gizonei jaten eman zien Jesus'ek. Nai aña eman ere...(Eta Oto'ri goitik begiratur): Aizak i, Oto, egingo al ukek uk beste orrenbeste?

- Bai, jauna!
- Zer esan dek?

(Praillea eta jende guzia arriturik Oto'ri begira)

- Baietz egingo nukela.
- Bost ogikin lau milla lagunei jaten eman?
- Bai, jaun!
- Baña, nola...?
- Joan dan urtean sobratu zirenekin!

LEENENGO ZORTZI EGUNAK TXARRENAK

Pototo gaxo zegoen. Oso larri. Ate atzean eriotzaren itzala ikuste omen zuen.

Bildurra sortu zitzaion biotz-muñean eta bildurrak eraginda, aspaldiko okerkeri baten damua sortu. Ots egin zion bere seme Pototo Txikiri, eta Oto'ren aurrean, onela ekin zion:

- Ara, seme, orain zazpi urte, Urdia'ren etxetik bei gorria ostu nuen...kortan daukagun bei gorritxua ez da gurea...
- Ez du, ba, iñork jakin...?
- Iñork, iñork...
- Zeñek?
- Jainkoak ikusi nindun...

- Eta zertan egon zera orain arte, ezer esan gabe?

- Ai, seme... Orain arte osasun ona izan diat beti: baña, orain eriotza ikusten diat gertu eta ez nuke nai bei baten-gatik inpernura joan...

Semeak ez zuen beirik gakdu nai eta an zegoen nora jo ez zekilla...Oto etorri zitzaion pertza konpontzera onela esanez Pototo'ri:

-A, ba...Inpernua ere zortzi lenengo egunak izango dituk txarrenak, gero oituko aiz.

Bei gorria ikulluan gelditu zan.

ANES (1968)
DEBA'n

SALMOAK

Salmo berriak kantatzeko Doitua!

(1) *San Juan*

Jaun-goi-ko Ai-ta mai-te zai-
tu-gu ze-ru lu-rren E-gi-lla Jain-ko
se-me-a, mai-te zai-tu-gu guzti-
on Sal-bai-tzai-lla - a Jaun Es-pi-ri-tu San-tu-a
ze-ra a-lai-ta-sun e-mai-lla - a gu-re
a-ni-mam Se-na-rra ze-ra po-za
sor-tzen lan-gi-lla - a

30° JESUS ELEIZAN ESKEIÑIA IZAN ZAN

1

Jesu jaio ta berrogei egun
eldurik urreratzera,
Ama Birjiña Semearekin
juan zan purifikatzera,
bere Semea maiorazkua
an Eleizan eskeintzera;
Jose santua lagun juana zan
lege zarra betetzera.

2

Lukas santuak dion bezela
Simeon au zan justua,
espero zuan Mesias eta

zeukan Jaun Espiritua.
Baita Ama profetisa ere
laroetala urtekua:
gaubez bieri esan ziena
zan Espiritu Santua.

3

Aita Jainkoak erabakia
zan Eleizan eskeintzeko,
maiorazko ta Jainko bezela
lege santa betetzeko.
Aitaren naia ta Semeana
bakarra zan bizitzeko,
Birjiña pozez preparatu zan
Eleizara etortzeko.

4

Elsu zanean urrengo goiza
Amak Aurra apainduta,
bi uxokume ta bi kandela
Eleizarako artuta,
Jose senarra lagun zutela,
ainguruak agertuta,
ostatutikan atera eta
zeuden Eleizan sartuta.

5

Ango apaiza Simeon ura
Eleizan sartu zanean,
ikusi zitun Ama-Semeak
aintzaz argitasunean.
Ama profetisa ura ere
saru zan ordu berean,
pozez beterik gelditu ziran
Erregiñaren aurrean.

6

Apaizak artu Jesus Aurra ta
eskeiñi zion Aitari,
begiak jaso zerura eta
kantatu zion Berari:
“Orain Jauna, agindu bere
zure serbitzariari,
pakean eta libre eraman
askaturik gorputzari.

7

Nere begiak ikusi dute
zure osasungarria,
danen aurrean zuk jarrita
erri danen pozgarria.
Nai duen danak artu dezate
osasun-pakez argia,
Bera da aintza Israelkoi
agertutzeko egia”.

8

Mariak eta Josek aditu
zuen apaizan kantua,
ta Simeonek Aurrari Amari
auxe zan esandakua:
“Ara, Andrea: Aur auxe degu
bizitza Israelkua,
zure anima izango dezu
ezpatakin zulatua”.

**31°IGESI JUAN ZIRAN
EGIPTO'ra****1**

Amalau milla aingeru juaten
ziran zijuazten lekura,
Amak nai zuan beatzi egunez
Eleizatik ostatura.
Eta bostgarren eguna zala
Aitak itz egin barrura:
“Zure semea zaitu il gabe,
jun Josekin Ejitura”.

2

Gau artan bertan ainheru batek
Joseri esan deituta:
“Jeiki zaitez ta zuaz igesi
Ama-Semeak artuta;
jun Ejitura eta an bizi
biurtutzeko deituta.
Etorriko da Erodes billa,
Aurra iltzea nai du ta”.

3

Jose jeiki zan eta juana zan
andreari esatera:
“Animatu zaitez igesteko,
Erodes dator iltzera
gure Aur goxo, zure Semea.
Nator zuri laguntzera”.
Erantzun zion: “Onak bezela
guazen txarrak artutzer.

4

Guk eramango degu gurekin
zeru-lurren Egillea;
ez da esku indartsuagorik,
Bera da poz emaillea”.
Jesus Aurra lo zeuken sieskan,
zan gauerdia otkillea,
itz goxoakin esnatu zuen,
ta zan bedeinkatzailea.

5

Jose santuak artu zituan
Ama-Semeak astuan,
Jerusalendik atera ziran
gau ixil da illunduan.
Aingeruak, argi egiñikan,
esana zien orduan:
“Erodes dana jakinda dago
il nai luke segituan”.

6

Gure santuak eldu ziraden
Hebron lurraren urrera,

ta aingeru bat biraldu zuen
Isabeli esatera:
“Gorde ezazu zure seme Joan
Erodes dator iltzera”.
Gaubes presaka Jesus zijuala
beregandik igestera.

7

Isabel santak gizaseme bat
biraldu zun billatzeko,
jana, dirua eta erropak
emanik eramateko.
Billatu zitun Gaza errian
erregalik emateko;
Jose santuak eskatu zion
ez iñori esateko.

8

Sartu ziraden Ejito lurren;
orain Kairo du izena,
juan ziranean Heliopolis zan
oni deitutzen ziena;
emen Jaungoiko faltsuak zeuzken
zan adoratzeko zuena;
eleizatxoan etsaiak zeuzken
sorgin-izketak zeuzkena.

**32° DEITUAK DIRA
BIURTZEKO NAZARET'era****1**

Ama Birjiñan besuan Jesus
eta San Jose onduan,
sartu ziraden leku arretan,
Aurra otoitz egin zuan.
Erori ziran idolok eta
beren eleizak onduan,
bertan bizitzen ziran etsaiak
inpernuru zituan.

2

Aingeru onak esan zioten
erri Kairon gelditzeko,
Ama Birjiña eta San Jose
Aurrakin an bizitzeko.
Artu zituen lau parete uts
prestatuta garbitzeko,
Jose santua iru egunez
eskean juan zan jateko.

3

Ama Birjiña ere asi zan
egiten eskuzko lanak,
bi emakumek errukiturik
ziran erropak emanak.

Birjiñak zer lan egiten zitun
arrek kalean esanak,
lana ugari ekartzen zien,
egiten zituan danak.

4

Sei illabete bakarrik ziran
Jesus jaio zanetikan,
asi ziraden aur danak iltzen
erregek agindurikan.
Birjiñañk argiz dana ikusten
zijuan Ejitotikan,
Aman erreguz aurak jakinda
il ziran Jaunagatikan.

5

Joan aurtxoa urte batekin
zan basora eramane,
ta amarekin iru urtean
bertan bizi izan zana .
Isabel il zan pake santuan
eta linbora zan juana.
Lau urterekin Joan bakarrik
basuan gelditu zana.

6

Ama Birjiñak Joan zaitua
ama il ondorenean,
aingeruakin jana biraltzen
zion txikia zanean.
Asi zan arte jana billatzen
basuan otso artean,
bere jana zan: belarrak, zaiñak
lixtor-eztia zuanean.

7

Jesus Ejiton bizi zanean
zala zazpi urtekua,
Aitak Jesusi esana zion
au zala bere gogua:
“Biurto zaite Nazaretera,
pasatu da peligrua”.
Erantzun zion:”Bai, Aita, nai det.
Au zan Amak aditua”.

8

Gau artan bertan aingeru batek
Joseri zion esana:
“Ama -Semeak artuta zuaz
au da Aitak nai duana,
Israeleko Nazaretera;
illa da errege zana;
Erodes eta bere koadrilla
Jesus galdu nai zuana”.

**Aldalur'tar Justiñe
(Lekaine Klaratarra)
Gazteiz'en**

KALETEGI EUSKALDUNERAKO ERISPIDEAK BAKION

(kale, bide, ibiltoki, zearbide, enparantza, parke, aparkaleku, zubi, iturriak, eta abar)

Laster erabagi bearko da erriko kale, enparantza eta abarren izenen ganean. Izan be, oraintsura arte, Bakio kaleizen bako erria izan da-eta kale askorik euki ezda be, egia esanda. Alan bada, amen dozue kaleok izendatuteko urrengo proposamen au, bertan ageertuko diran erispideak kontuan artu dodazala:

EUSKALDUN-EUSKALDUNA

Euskal sena erabili. Gure arbasoak erabilitako jokabideetan oinarrituta: uri zaarretako kaletegi deskriptio euskalduna (Bilbo, Durango, Bergara...), bertako lekuko edota Bakio urko eta asagoko toponimia, sorkuntza barriko toponimoak (tokiko berezitasun geografikoari jagokonez).

Orretan beratan, baina, eta urrengorik urrengo, Bakio euskera artu bear da kontuan leenengo-leenengo, gero Bizkaiera bera, eta azkenik euskera osoa.

Etorri be, kaleizen barriok inguruko (erriko) berbeta errealdadeagaz eta toponimia istorikoagaz bete-betean bat etorri bearko leukee.

(aga-albo-alde-arte-asko-aurre-atze-azpi-baltz-barren-barri-be/pe-beeti-beeko-biribil-bitarte-buru-ena-estu-eta-gane-gitxi-goi-goien-goiko-goiti-guren-aindi-amdi-emeti-kantoi-ko-landa-leku-luze-mune-mustur-nagosi-ondo-oste-sakon-tegi-/degi-ti/di-txiker-txiki-txutza-zabal-zaar-zuri...)

ETORKIZUNERAKO JOKABIDEA

Etorkizunerako jokabidea asi. Jokabide zabal-zabala eta emonkorra dan au edegi. Au da, **Kaletegi Iraun-**

korra deritxona. Au kaletegi au **toponimian** eta **euskal senean** onarrirituten da. Edo beste era batera, bertako lekuko toponimia erabiltea, edo inguruko toponimia, erri barruko asagoko toponimia edo ori ezean, bertako lekuko berezitasun (akzidente) geografikoari jagokon kaletegia deskriptiboa (paratoponimoak), inguruari erreferentzia egiten deutsona, atan be. Azken baten, gure arbasoak lekuai izena emoteko berez-berez erabili izan eben jokabidea. Au da, toponimo/kaleizen barriak sortuteko bidea (ikus beeragoko adibideak).

EREDUZKO JOKABIDEA

Euskalerrri guztian azkenego urteotako jokabiderik bikainena izan leiteke au berau. Bearbada, Euskalerrri guztian leenengoa, leenengo biderrez erabiltzen dana. Aukera ezin obea, beraz, Euskalerrrian normalkuntzarako bidean oinkada sendoa, atan be.

KALETEGI NEUTROA EDO IRAUNKORRA

Kale izendegetik baztertu bear dira jokabide alderdikoiak edo alderdikeriak erakutsi leikeezan aukerak. Alan bada, gizaki edo gizakien ekintzen edo erreferentziak baztartuko litzakez. Ikusi dogu-eta urteen joanean zenbat bider aldatu diran kaleizen asko eta asko aginduten dauaren arabera. Ortik dator, bada, **Kaletegi Iraunkorra** deritxon gogaia.

Iniaki MARTIARTU
BAKIO

KALETEGIA

Goienkale	Erdikokale goiena	Beekale
Barrenkale	Beekokale goiena	Goikale
Artekale	Kale barria	Aldapaburu
Zearkale	Kale zaarra	aldatsa
Albokale	Kale nagusia	Aldasburu
Goikokale	Kale txikia	Aldasgane
Erdikokale	Kale zabala	Alda(t)s barria
Beekokale	Kale estua	Alda(t)s zaara
Goienkale goiena	Kale luzea	Alda(t)s nagusia
Barrenkale goiena	Kale laburra	Alda(t)s txikia
Artekale goiena	Kale itsua	Alda(t)s zabala
Zearkale goiena	Kaleburu	Aldas estua
Albokale goiena	Kaleartea	Alda(t)s luzea
Goikokale goiena	Ostekokale	Aldas itsua

LEGE ZARRA

16: EMOITZAK ETA BETE-ERAGIKETAK

I LEGEA: BETE-ERAGITEA ZELAN AGINDU.

Lenengo esan eben: Epaikariak aurrera egin-bearra edo kobratzea agindu ezker, bete eragiteko agindua emon dagiala, artzekodunaka zin eginda agertu dagiala ze diru-tza artu bear dauan.

II LEGEA: EGINBEARRA TXIKIA DANEAN ZELAN BETE ERAGIN

Baita: Eskatzen dan bete bearra txikia danean, andra-gaiaren arrioa, edo abere-ondasunak edo garia naiz ardaua naiz burdiñeak naiz euna danean, bete-eragipena egin-aurretik auzipean dagoan gauzea baliatu egingo da ete baliatukeran zorduna antxe izan daitela eta baliatuta gero emon bete eragiteko agindua.

III LEGEA: LEGE-AUSTETIK EZ DATORREN ZORRAGAITIK EZ IÑOR ESPETXERATU

Baita: Bizkaitar guztiak aitonen seme izanik, eta olakoai dagokionez, lege-austerik ez datorren zorragaitik ezin daitekela iñor espetxeratu eta euren ondasunik saldu ez armarik eta ez zaldirik.

IV LEGEA: BETE-ERAGILLEA ETXEETARA ZELAN SARTU

Baita esan eben: Norberaren etxea babes-lekua izatea gauza ona-dalako, eta Bizkaitarrak aitonen seme diralako, lege-austerik ez datorren zorra dala-ta ez prestameruak eta ez merinuak ez beste-eragillek ez dauke eskubiderik bizkaitarren etxera sartzeko eta urreratu be ez lau beso baiño urrago, beste gizon bat eskribauagaz eta arma bagerik erakusten ba' dau, sartu daitela eta ez dakiola gogor-keririk egin.

V LEGEA: ONDASUN BAITUAK ZELAN LERROKATU ETA ZORDUNAK EZ SALDU

Baita esan eben: Bete-eragilleak ondasunak dagozen lekura joanda agindua bete eragin dagiala len esandako eraz, ondasunak lerrokatu banan aitatzuz eta balioa ezarritz, erri-basoetan dagozan bei ta idi, abere, mando ta zaldi eta

beste abereak kontuan dirala. Eta olako ondasunak jabeak salduko ba' leuz zigorpean geratzen da eta espetxeratu leike, aitonen seme izan arren.

VI LEGEA: BETE-ERAGIPENA AMAR EGUNEN BARRUAN ZORDUNARI EMON.

Baita: Bete-eragipena zordunaren aurean egin ez ba'zan, artzekodunak amar egunen barruan adierazo bear dautso, aurkitu al ba'da, eta aurkitu ezin ba'da bere etxean adierazo dakiela emazteari edo seme-alabai edo beste etxekai eta orrelan egin ezik, utsa izango da.

VII LEGEA: ONDASUNAK ERREIMATEAN ZELAN SALDU

Baita: Bete-eragipena egiteko zan parroki aretan etenik bagako iru domeketan eleizbira egiten dan orduan eru aldarri egingo dira eta gero geien emoten dauanari saldu ondasun mogikorak eta beiak eta lur-ondasunak saltzeko epea antxe ezarri bedi andik urtebeterako eta urtea igaro-ondoren beste iru aldarri egingo dira iru domeketan eta geien eskintzen dauanari salduko jako eta aurkarien eskariak alperrekoak izango dira.

VIII LEGEA: ERREIMATEAN SALDUAK EROSI DITUANAK ZORKIDEAGAZ BERBA EGIN

Baita: Erreamatean erosle izan danak ondasun mogikoren kopurua zordunkideari ageretu dagiola eta zordunak ordainduko dauala berbea emon dagiala, eta egiten ez ba'dau, egillearen ,menpean dagoan ezker, eta aurkaiai eta alderdai epaikariaren aurrera dei egin dagitsela eta artzekodunak zordunaren etxekoai barria emoteko arduratu daitela bera agertzen ez ba'da.

IX LEGEA: ZORDUNKIDEAK ZELAN ESPETXERATU ETA AREIN ONDASUNAK SALDU

Baita: Errematean salduriko ondasunen erosleak, ezarritako epe-barruan ordaindu ezik, espetxeratu daitezela. Agindu oneik bete ezik, legezko zigorrak leporatuko jakez. Eta erdia izngo da bete-eragillearentzat eta beste erdia konderriko bideak konpontzenko. Eta espetxean bederatzki egin igaro ezker, ondasunak saldu leitekenez.

17: SALKETAK DIRALA-TA

I LEGEA: LURRAK ZELAN SALDU, IRAGARRI-TA ETA SENIDEAK JAKITUN DIRALA.

Lenengo esan eben: Iñork lurra saldu gura dauanean, saldua dagiala lurra dagoan tokiko eleizan eskribauaren aurrean eta meza-bitartean edo eleiz-biran iru domeketan dei eginda eta erosi nai dauan senideren bat etorri ezker, eskribauaren aurrera agertu daitezela eta irugarren egunean korrexidoreagana azaldu daitezela saltzaillea ta eroslea eta bakoitzak gizon on bat izendatu dagiala, eta epaikariak beste bat eta zuzen jokatzeko ziña egin dagiala eta salneurria milla maraiz beerakoa ba'da, senideak antxe ordaindu dagiala eta geiago ba'litz iru zatitan, lenengo salneurria jakiterakoan, bigarrena sei illebetean eta irugarrena beste sei illebetegarrenean eta epea igaro ezker, zorduna atxillotu lei eta gero salketa sendoa ta baliozkoa izan daitela.

II LEGEA: LURRA EROSTeko SENIDE ASKO BA'DATOZ ZEIN LENENGO

Baita: Iru deiak eginda gero, senide asko etorriko ba'litzakez, batzuk urragokoak beste batzuk baiño, eta batzuk aitaren aldekoak eta beste batzuk amaren aldekoak, Aitararen aldekoak izan daitezela lenengo urrengorik urrengora amaren aldekoak urragokoak izan arren, baiña ondasunak amaren aldetik etorriak izan ezker, guztiak bardin izan daitezela erosle amaren aldekoak lenago dirala, baiña ondasunak erosiak ba'dira alde bakoitzekoak erdi bana egin dagiezala. Baiña seniderik agertzen ez ba'da, jabeak nai dauanari saldu dagiola.

III LEGEA: SORT-SENIDEA LENAGO ZATIDUNA BAIÑO

Baita esan eben: Lurra saltzen danean, seniderik etorriko ez ba'litz, zatiduna edo laugarren mailako senidea ba'letor, sor-senidea izango da lenago, zatiduna gero, eta esaneko eran eskuratuko dabe lurra, ordaintzeko epeak bardiñak dirala. Seniderik ez ba'letor, laterri-legea bete beite.

IV LEGEA: SALTZEAK BALIOZKOAK IZAN DAITEZELA ETA EZ APURTU

Baita esan eben: Deiak egin eta sltzailleak sor-senideari emon ezker, ez batai eta ez besteari ez dakiola garbatu,

bakoitzari dagokiona emon baiño. Erosleak saltzen diran solo guztiak erostea nai ez ba'dau, ori saltzaillearentzat kaltegarri izan leiteke, besteak saldu ezin dauzalako, orregatik sort-senide ori ez daitela onartu ondasun guztiak batera erostea nai ez ba'dau.

V LEGEA: ZELAN SALDU SALKETA LEGEAUSTE BATEGAITIK DANEAN

Baita esan eben: Bizkaitarren batek gaiztakeri bat egin daualako zor dauana ordaintzeko ba'litz salketa, lurra dagoan tokikoeleizan iru domeketan deia egingo da eta gero errematean saldu len esan dan lez. Senideak ba'datoz onartu daitezela eta bederatzi egunen barruan ordaintzen ba'dau, eta eroslerik ez ba'dago, auzokoak beartuko dira eroatera, irutatik bat kendu eta bederatzigarren egunean ordainketa egitekotan eta gero senideren bat agertzen ba'da, irurena beeratu oneri be eta urtebete eta egun bateko epea emon.

VI LEGEA: ONDASUNAK ONELAN SALTZEN EZ BA'DIRA, SALAKUNTZA EZ KELTERAKO

Baita esan eben: Saltzeko bear diran deiak egin barik lurren batzuk saltzeak jazoten ba'da, senideak eskubidea dauke indasunak bereganatzeko eta urtebete ta egun bat igarota gero ba'letor ez dakiola entzun, legearen arabera zin egiten ez ba'dau eta olakoan salketa egin eta iru urteren barruan etorri arren be, onartu daitela.

VII LEGEA: ONDASUNAK ZATITU BARIK SALTZEN DIRANEAN. EZ UKATU ORDAINTZEA

Baita esan eben: Saltzeko deiak eginda, soloa birena ba'da, eta sort-senidea etorri, ori saltzaillearen kaltegarri dan ezker, zatiketa egin ez ba'da, erosleak ezin leike ukatu iru epetan ordaintzea.

VIII LEGEA: DOAN EMONAK SALDU LEIKEZ ETA SOR-SENIDEAK EROSILEIKEZ

Baita esan eben: Batek emon leikez soloak janarien orde, eta janaien egin-bearra ondo betetzen ez ba'da, salgai ipiñi leikez salneurriagaz bera bizi izateko, baiña ez isilik eta deiak egin bagerik, artu dauanak janariak emon egin bear dauzala eta epaikeriak eskatuta ori egiten ez ba'dau, iru deiak egin ondoren, eta erri-eskribaua eleizan

dala irugarren domekan janariak emongo dauzanari errematean saldu dakiola eta sort-senideen eskubidea bekontuan artu bear da.

IX LEGEA: GOZAMENEAN GURASOAK ZEIN ARITZ EBAGI LEIKEEN

Baita: Baserri-erdiaren gozamena daben gurasoak eta onein seme-alabak ezin dabe ebagi, doan-emoilleak ebagi dagiala iñoz moztu bako aritza, ezkurra eta frutua ekarri dagizan ebagi barik itzia izan ezik, onelakoa ez da ebagiko eta frutuak erdi-bana egingo dira.

18: TRUKEAK EGITEA ETA ORDEAK EMOTEA

I LEGEA: IRUZURRAK TRUKEAN

Baita esan eben: Bizkaitar batek beste bateri trukean soloa emongo ba'leuskio, eta urtebeteren barruan truke orretan iruzurra egon zala agertuko ba'litz, iruzur ori arteztu daitela edo gauzea biurtu.

II LEGEA: SORT-SENIDEARI EZ EMON TRUKEAN IRUZURREZ

Baita esan eben: Trukea sarritan egiten dala senideari iruzurrez zerbait kentzeko. Soloen truke egitea eta orde emotea egiten danean, solo ori ezin daitekela borberagandu, sor-senideari entzun bear jako.

19: BAIKUNTZAK DIRALA-TA

I LEGEA: BAITU DAN SOLOA BEREKANATZEA

Baita esan eben: norbaitek bere soloa baitzen ba'dau, egin leike, sort-seniderik urrena eskubidedun ba'da, eta urtebete ta egun baten barruan barrero berekanatu leike.

II LEGEA: BAITU EBANA ETA ARTU EBANA BATERA EZ DATOZENEAN ZER EGIN

Baita esan eben: Iñork urrezko gauzaren bat baituta ba'leuko eta jabeak kendu gura ba'dautso, baiña biak batera etorri ez zenbat diru bear dan jakiteko, zenbat emon zan zin egin ezkerro, sinistu leike, zi;ai buruz gorago esan zan lez.

III LEGEA: ZORDUNAK NAI EZ DAUANA, ARTZEKODUNAK SALDU NAI DAUANEAN ZER

Baita: zordunak baituran dagoana kendu gura ez daualako, artzekodunak saldu nai ba'dau, doazela epaikariagana saltzeko baimena lortzeko. Arazoa sordunari agertu eskribauaren bidez eta irugarren egunean kentzen ez ba'dautso, zordunaren eleiza nagusian meza nagusi bitartean, eskribauaren aurrean iru domeketan iragarriko da eta eroslerik ez ba'litz artzekodunak eroslea billatu dagiala eta sordunari adierazo eta iru egunen buruan gauzea len lez izan beite eta eroslea agertu ezkerro, eskribauaren aurrean egin salketa.

Olazar'tar Martin'ek



ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Zer dabil or? (Azilla)

- Bilbao'tik Milan'era egazkiña zuzen.
- Muzkiz'en euskerearen eguna.
- Aznar'ek epaitegira daroaz Jaurlearitzaren ordezkari-tzak.Eta zer?
- Jaurlearitzak gaiso-etxeetan umeentzat ikas-gelak ipiñi dauz.
- Kaldera'k diñoanez,Ana Palazio'k txirotasun aundia ta buru laburra dauz.
- Lendakaria ez da joango Madrid'era erregegaiaren ezkontzara.
- Janari ezeak urte batean %47 karutu dira.
- Amar urtean gure soloak %60 urritu dira.
- "Lula"ren ustez Euzkadi erri serioa da,ekintzaillea ta laguntzaillea.
- Euskal-kaietan joan-etorria ugaritu egin da.
- 26 il dabez Irak'en kamioi-bonba bategaz,18 italia-rrak,españatarren ondoan.
- Europa'ko lurraldeak Ibarretxe'ren esondapenaren zati batzuk ados.
- Konfesbak'en ustez,ona lantegi gitxiago etortea ez da Ibarretxe'gaitik.
- Aldundiak %50 geigo eralgiko dau bideak konpon-tzen.
- Laterri Batuen okerkeri aundia da Guntanamo'ko espetxea.
- Prestige'ren ondoratzeak 230.000 egazti il dauz.
- Euzkadi gaur España'n eta Europa'n lurralderik abe-ratsanetarikoa da.
- Katalunia'n abertzaleak nagusi auteskudean.
- Madrid'eko Goi Gotzain dan Rouko Kardinala Iba-rretze'ren esondapena'ren aurka.
- Euskalerriko Gotzaiñak Ibarretxe'ren esondapena'ren alde.
- Anasagasti'k Rouko Kardinala Korte'ko kapellaua dala diño.
- Rouko Kardinalak bere izenean bakarrik egin ei dau itz,diño Uriarte Gotzaiñak.
- Sabino Arana'ren irudia egin dabe Bilbao'ko Albia'n.Ordua zan!
- Irak'en zazpi soldadu españar il dabez.
- Legeak aldadu nai dabez Ibarretxe ta Atutxa espetxe-ra eroateko.Demokrazia?

Itxas-lapur euskaldunak

Ez dira eredugarriak, sarritan okerreko bideak artzen dabez, baiña euskaldunak dira eta ezagutu egin bear doguz.

Bildurgarriak ziran eta gizaldietan iraun dau itxas-lapur euskaldunen eta inglesen arteko asarreak. 1350n.urtean itxas-lapur euskaldunak Ingalaterra'ra joan ziran guda egiteko ustez eta Eduardo erregeak ikaratu-ta, eskutitz bat egin eutsen Kanterburi eta York'eko goi-gotzaiñai eta auxe diñotse: "Arroak dira eta Flandesén ontzidi aundi bat batu dabe gure ontziak apurtzeko eta gure erreñu onetara sartzeko". 1350n.urtean egin eben euren aurka gudaldia eta euskaldunak ondatuta geratu ziran eta iges egin eben. Gudan 36 itxas-ontzi arrapatu ebezan, gizon eta izkillu ta guzti. Urrengo gudaldiak Txerburgo'n, Plymouth'en, Portland'en eta abar izan ziran eta inglesak iges joan bear izan eben.

1477n.urtean inglesak itxas-ontzi bat bialdu eben Gipuzkoa'ra bitxiz eta eun ederrez beterik, baiña ekaitza zala-ta Frantzia'ko kai batera sartu ziran eta an ontzira etorri jakezan bost itxas-lapur euskaldun eta itxasora urten ziranean, ontzi-eroaleak lo egozala, itxas-lapur euskaldunak samea ebagi eutsen, gorpuak itxasora bota eta ontzia Galizia'ra eroan eta saldu. Baiña gorpuak agertu ziran eta itxaslapur euskaldunak be eriotzara epaitu ebezan eta iges egin eben.

Itxas-lapurren aurka guda egiteko gudaldian galdu eban bere bizia Mungia'ko Matxin ospetsuak. Andrea Doria'k iges egin ebanean, berak eta bere ontzikoak bakarrik irabazi eutsen Barbarroja korsarioari, Baiña Korfu'n arrapatu eben Matxin eta fedea ukatzeko eskatu. Ori nai ez ebelako il egin eben. Orra or martiri bat santu egin bagerik!

Olazar'tar Martin'ek

LURRAREN ONTASUNA

Lurrak landu-alan, ale onak emoten ditu. Izan bere, ortarako dira soloak, landuak izateko ta gizadiari janariak sortzeko. Gizonak lan egiten dau ba, ta izadiaren Jaubeak lurra ta gizonaren izerdiak bedeinkatu egiten ditu. Alderdi biok dira bear-bearrezkoak. Alan autortu eben antxina lur langilleak zeru ta lurretara begiratzuz, masuagaz lurra jo bear dau ta biotzagaz otoi masukada orreik frutu onekoak izan daitezzen.

Baserritar zentzudunen burua beti bide orretatik ibili zan. Baserri-lugitiak ondo ekien lana, euria ta eguzkia, sasoi onean bear zirela. Lanak berak egingo eban, baiña euria ta eguzkia ez egozan gizonaren eskuetan. Lurak landu, jorratu ta ondu pondoren, zenbat bider gure arbasoak, txapela kendu ta eskaria egiten eutsen eguzkiaren Jaubeari laguntasuna eskatzen.

Jokabide au biziak eskatzen dau. Gure almen ta nai izatez goitik dago gari-ale batetik galburu eder ta ugari bat sortzea ta arta-garau batetik artaburu urrezkoa agertzea. Zelako gari solo ederrak ta zelako artotza bizigarriak ezagutu izan genduzan antxina ez dala, lengo aldi. Txapela kendu ta agurtzeko erakoak ziran. Egiz, ikusten ziran gizonaren eskuz ta Egillearen bedeinkapena. Biak ondo alkar artuta ebiltzezan.

Gizonaren sinismena, lana ta izerdia, abegi onez artzen zituan biziaren Jaunak ta giza seme-alabak be sarri gogoratan ziran beragaz, laguntasuna eskatzeko ta eskerrak emoteko. Artu-emonean egozen, beti, lurraren ugezaba ta morroiak, ta era orretan, lurreko langilleak barruko bake ta poz geiagoz bizi ziran. Barruko poza ta kanpotik agertzen dan poza sarri ez dira berdinak. Barruko pozak bakea ta atsedeen ederra beragaz daroaz ta azaleko opozak bere

jotak daukaz. Etzetik urtekeran arpegi baltizkea agertzen dau ta jente artera sartu ondoren, pozaren iturria dala dirudi. Nork ete dauka errezoia...

Gari solo ederrak, arto sail nagusiak ta patata soloak lorlan, baserritarren ametsa ta bazkaria ziran. Lurra oparozan ta gauza ederrak emoten ebazan gizartearen onerako. Baiña baserriko lanak ezin dau gizona asetu eta emakumea gitxiago. Begiratu lau alderdiertatik gizarteko bizitzari ta ezin dabe astu giza semea ez baserriak, ez burdin-lantegiak ta ez itxasoak. Persona batek bakarrik orrek guztiok baiño geiago balio dau, lagunaren izatea askoz gorago dago. Adimena, borondatea, maitasuna ezin bardindu leitekez burdiñagaz, ez zidarragaz, ez urreez...Gizonaren lan ta jakituri barik, lurpean, erdi-ilik egongo litzakez.

Antxina, gizon jakintsu ta santu batek Jaungoikori esan eutson: Nire biotza artega dago zuregan atsedendu arte...Geuk be Agustin santuagaz batera, bardin, diñogu...Ez dogu aurkitu gaur arte, gure barruko atsedeen osoa, ez janarietan, ez arte lanetan...Jaungoikoak esan eban, neure irudira egin dagidan giza-semea...Guk daukagun titukurik aundiena auxe da...Munduaren Egille berberaren antzekoak izatea.

Jaungoikoaren irudi ori, emengo gauzak ezin leikie ba goitik eta beraño poztu. Gure adimen eta naimenaren askatasunezko bizitza ori, bizi sortu dauanak bakar bakarrik asetu leike. Lurra bear dogu, lurpean ipini ginduzan-eta, lurreko gauzak bear ditugu, aren bidez gure bizitza jorratu bear dogu-ta. Ta orren bidez nai dau gu zurtu ta beregana eltzea...ta beragan zoriontsuak izatea, gure barruak eskatzen dauskun eran.

Solozabal'dar Paulin

EUSKERAZALEAK

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 2004'ko urtarillaren 29an (egunean) gure erakundearen etxean arratsaldeko 8'etan izango dan oiko batzar nagusira, urren-go egitamuz:

- 1- Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onepena.
- 2- Diru-egoeraren azalpena.
- 3- Urteko ekintzen azalpena.
- 4- Arduradun barriak.
- 5- Eskaera ta itaunak.

LENDAKARI ORDEA

EUSKERAZALEAK

Querido asociado:

Mediante la presente te convocamos a la próxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrará el día 29 de enero de 2004 (jueves) a las 8 de la tarde en los locales de nuestra Asociación y con el consiguiente orden del día:

- 1- Lectura y aprobación en su caso del acta de la Asamblea anterior.
- 2- Estado de cuentas.
- 3- Memoria de actividades.
- 4- Renovación de la junta.
- 5- Ruegos y preguntas.

EL VICEPRESIDENTE

EUSKALDUNEN KIROLAK

Kirola gure gorputza bizkortu, indartu eta arinduteko dan ekiñaldia da. Sarritan beste batzui geiago egiteko bide lez artzen da. Eta geienetan dirua aterateko bidea be izaten da.

Euskalerrian kirolen jatorria lana izaten da eta lan ori, esaterako, zura ebagitea edo arraiña ekarte edo idiak lanean ekitea, zeñiek bizkorrago egin leiatzeko danean kirol biurtzen da.

Estropadak kalatik kaira arraiña zeñiek ariñago ekarri ziran asieran, lenengo eltzen zanak salneurri obean sal-tzen ebalako.

Arlo orretara gero diru-jokoa edo demak sartzen dira. Jokoa izan ei da Izaro ugarte bermeotarrena ala munda-karrena zan ebatzi ebana. Zortzi egun trebetzen ekin ondoren, 1719n.urteko uztailaren 22n.egunean egin zan estropada ospetsu ori, Magdalena egunean, eta gaur be ospatzen da jai bat egun orretan.

Idi-demak be lanetik sortuak dira: Idizaiñik onena nor dan jakiteko, arri bategaz egiten daben kirola.

Ardiak zaintzeko txakurrak izaten dira lagun eta lan orretatik sortua da artzain-txakurren leiaketa.

Gerkeratik etorria dan “arito” izena dauken piztien artean be zein geiago dan jakiteko topekak izaten dira beste dema-bide bat.

Artzainen aldikoak dira gure inguruetan agiri diran dolmen edo triku-arriak eta orreik egiteko gizon indar-tsuak bear ziran.

Ortik etorria izan daiteke arri-jasotzailleen kirola, baiña ziurrago sortu izango zan beste lan onetatik. Gure arrobietan argin euskaldunak erdi-aroa ezkerori dira ospe-tsuak eta II Felipe Erregeak be agindua emon eban Esko-rial egingo eben argiñak euskaldunak izan zeitezela eta euren arrobia euken andik ez urrin. Gaur erri onek Min-

gorria dauko izena, an lan egiten eben euskaldunak elgo-rria euki ebenean ezarria.

Arrobietatik sortua dala arrijasotzailleen kirola baiez-teko, argi esan bear da kirol au egiten dabenik geienak arrobien inguruetan bizi izan diranak dirala.

Aizkolarien lana gaur be orain millak urteak dirala izan zana bera da: langille-taldeak ziran eta erririk erri ibilten ziran eta euren almena agertzeko ziran leiaketa oneik.

Noiz sortu ziran kirol oneik? Noiztik dator oitura au?

1940n.urte inguruan sartu ziran kirol oneik izparrigie-tara, baiña orduan egiten zan itauna bera egiten dogu gaur; sortu, noz sortu ziran?

Barandiaran’eri egin eutson itaun au, idaz-lan onen iturri dogun Munitibar ospetsuak eta ona emen erantzuna: Ikusi egizuz 1921-1936 bitartean argitaratu ziran Eusko Folklore orriak. Eta Munitibar’ek begiratu eban Larramendi’ren Koreografia liburua be (1882). Emen oit-urak dira geiago aztertzen eta zuzentzen diranak, baiña aitatzen dira pelota-jokoa, eta palankariak be.

Esandako eusko-folklore orrietan probarrria be aitatzen da.

Labayru’k bere edestian (1895) “dantzak eta jokoa” atalean, palankariak aitatzen dauz, baita aizkolarien jokoa be.

Aitatzen dauan beste joko bat arrian barrenoa nork ari-ñago sartu da. Idi-demak eta aritoen topekak be aitatzen dauz.

Iztueta ta Etxebarria’tar Juan Ignazio Zaldibiarak, 1767n.urtean, dantzari-taldeak eratu ebazan eta Gipuz-koa’ren edestia dan liburua bat idatzi eban eta VI atalean aitatzen dauz kirolak: pelota-jokoa, idi-demak, aizkola-riak, palankariak, arito-topekak, arri-jasotzailleak, saltu-lariak, arinlariak eta abar.

OLAZAR’tar MARTIN’ek

Padua’ko Andoni deuna, jatorriz euskalduna

XII Pio aitasantuak izendatu eban Padua’ko Andoni deuna. Lisboa’n jaioa, Portugal laterriaren zaindari eta eleiz-irakasle.

Leku askotan ibilli zan Barri ona zabaltzen: lenengo, Agustindar izan zan, baiña mixiñoietan martiri izateko gurariak eraginda artu eban frantziskotarren jantzia eta Tolosa’n izlari zala egin eban lenengo alatz edo miraria, gero Naparroa’n eta Gipuzkoa’n egin eban lan ori. Gero Bizkaia’n be ibilli zan zarata aundirik atera bagerik, ama Sukarrieta’koa zalako eta Izaro ugarte igaro ebazan egun batzuk eta gaiso asko osatu ebazan.

Labayru’k bere lanaren 2n. alean, 214n. orrialdean diñoanez, “ete zan Padua’ko Andoni deuna jatorriz biz-

kaitarra?” Lenengo, goian esan doguna ez dala egia diño orren gomutakirik ez daukelako frantsizkotarrak, baiña Urkiola’n abesten diran bertso oneik gogoratzen dauz:

Aita San Antonio Urkiola’kua
Askoren santu debotoa,
Askok egiten dautso San Antonio’ri
Egun batean joan da bestean etorri.

Urkiola’ko parroko izan zan Benito Bizkarra’k diño orren gaiñera, gaba Urkiola’n egiteko oitura ori antxiña-koa dala eta antxiñatik esaten dan lez, Andoni deuna’k Urkiola’n igaro eban gaua gogoratzen daua.

OLAZAR’tar MARTIN’ek

FILOSOFO EUSKALDUNAK (XVI-XVII)

Euskaldunak geure izaera bereizia daukan lez, berez dator geure filosofia be bereizia izatea. Baiña ez da egin azterketa sakonik gure filosofia zein eta zelakoa dan jakiteko. Idazlan onetan orretarako Alzo'tar Mikel'ek egin dauan billaketa agertuko dogu. Berak 1935n.urtean Jakintza aldizkarian agertu eban.

Erromatarren aldi, I gizaldian, Kintiliano izan zan Kalagurri'ko jakitun, idazle eta izlari ezaguna. Erroma'ko pentsakerea beraganduta euki arren, agertzen dau euskal-izaerea be: Zorrotza, sakona ta eginkorra da, eta izaera oneik agertuko dira geroko filosofo guztietan be.

IV gizaldian beste Kalagurri'tar bat daukagu, euskalduna, ta jakituna, olerkaria ta filosofoa izan zan Prudentzio, eztabaidetan zorrotza, zeatza, argia, nortasunez betea, bero eta barru-olerkari edo liriko ona.

Baiña erromatarren aldia gudak eta itunak egiteko zan ohea, filosofirako baiño. Erromatarren bide zabalen inguruetan baiño ez dogu aurkitzen pentsalaririk.

Bizigoten aldi ez daukagu nondik-jakin askorik, orduko idazle guztiak gure arerioak ziralako, "Domuit vascones" pozik idazten eben areik, lekaideak eta gotzainak izan arren.

Alboz jatorkun eskutitz on bat daukagu: Gure leikade-etxe ugariak (Erdi ugarte osoan 1000 ziran eta Euskalerrian bakarrik 200) ikertu eban Euliojio Kordoba'ko Gotzainak egindako eskutitza da, IX gizaldikoa, eta Napparroa'ko lekaide-etxeetan aurkitu ebala diño galdu barik egoan erromatarren jakintza-apurra, errikoa naiz erlejiño-bidekoa. Onein irakurgairik gurena olerkari ta filosofo euskalduna zala esan dogun Prudentzio.

VIII eta IX gizaldietan arabiarren jakintza zan nagusi eta nastean judatarrek, mozarabeak eta kristiñauak. VIII-X gizaldietan gaur ezagun dogun Bagdad zan nagusi, X-XII gizaldietan, ostera, Kordoba.

Euskaldunak eta arabiarrek jakintza-arloko artu-emon asko izan eben: II Silbestre aitasantua Kordoba'n egon zan aitasantu izan baiño lenago, "causa sophiae" edo jakituri-billa etorrita.

Euskaldunen artean, X gizaldian Muskaria edo Tudela'n, osagille-filosofoen artean, Aboul Abbas et- Totilli el-Ama daukagu, Muskaria'ko itsua deritxona, eta beste bat Ben Garzia, jatorriz euskalduna eta Muza Alkorthobi, Biana'ko Printzearen eta onen onen amaren osagillea.

Judatarren artean, be bizi izan gendun gure jakintza. Judatarrek ekonomi ta jakintza-arloan adoretuak izan ziran Euskalerrian, eta gure erriak beti ondo artu ebazan euren jakintza ta aurrerapide guztiakaz.

905n. urtean Santxo Abarka erregearen aldi agertu ziran emen. Eta filosofo ezagu-

nak dira Benjamin Ben Jonah, Musikaria'koa. Onek XII gizaldian "Itinerario" liburuan agertzen dau beronen filosofia. XIII gizaldian ospetsua da Musikaria'ko Samuel, XIV gizaldian Lizarra'ko Dabid eta Abraam eta napartarra zan Pablo de Santa Maria gero gotzain eta kantziller izan zana, eta bere iru seme gotzaiñak eta Aristoteles'en "De anima" eta "Physika" itzuli ebazan Rabbi Sem Tob.

Filosofo guzti oneik Euskalerrian zabaldu ebazan gaiak, filosofia, legetza, elertia ta medikuntza, dana nastean izan zan.

Mozarabe kristiñauen aldi jakintza asko galdu zan eta geiena lekaide-etxetara sartu: XI gizaldian liburutegetan 200 liburu inguru dagoz, geienetan San Isidoro'ren etimolojiak, Aristoteles'en azalpen batzuk, Porfirio, Zizeron, Boexio, Prudentzio, Birjilio, Oratio, Jubenal, Obidio...

Santxo Aundiak ekarri ebazan Lekaide Klunitarrak Peña'ko Jon Done'ra, gero Leire'ra eta Oña'ra (1033), baiña klunitarrak eleizakoa ez zan jakintzaren arerioak ziran.

Lekaide-etxeen aldia dator urrengo. Esan dogu noraiño goratu eban Kordoba'ko Euliojio'k Euskalerrian lekaide-etxeetan aurkitu eban lekaideen ugaritasuna, jakituria ta santutasuna eta emendik liburuak eroan ebazala, aldakiak egiteko. Ona emen izen ezagun batzuk: Arga-ondoan San Zakarias, Albelda, Najera, Usun, Iratxe, Donemiliane, Leire, Isusa, Erronkari'ko Martin deuna. Eta guztietan egozan liburutegeti arrigarriak. Oneitako filosofia Agustin deuna, Isidoro deuna, Prudentzio, Porfirio eta Aristotele'ren azalpen batzutatik artua zan.

XIII gizaldian daukagu Rodrigo Ximenez de Rada goi-gotzain ospetsua, Gares'en jaioa, Letran'go Batzar nagusian, euskeraz be bai, berba egin ebana.

Ez da aitzu bear erdi-aroan filosofia ta teolojia gauza bat zirala eta batera agertzen dirala beti.

Lekaide-etxeetatik goazen ikastetxe nagusietara.

Ikasle euskaldunak Paris'eko eta Leri-da'ko ikastetxetan nagusietan ikasten eben filosofia. Napparroa'ko Albrit'eko Jone erre-giña laguntzaille ona ebela. Ikasle naparrak Alemania'ra be joan ziran ikastera, eta artu-emonetan egozan Paris, Tolosa, Montpellier, Erroma, Bolonia, Oxford eta Kanbridge'ko ikastetxe nagusiakaz.

Ona emen jakitun batzuren izenak: II Karlos Napparroa'ko erregea, Iruña'ko Garzia ta Nikolao osagilleak, Pedro Lopez de Aiala kantzillerra...

XV gizaldian jakitun eta teologo-filosofo oso ezagunak daukaguz: Getaria'ko Martin Konstantza'ko Batzar Nagusian, Biana'ko Martin IV Alejandro aitasantuaren teologoa,

Arrasate'ko Meltxor Bolibar Alkala'ko erre-torea, Gizaburu'ko Lope teologoa, eta moralista asko.

XVI gizaldia euskal-filosofiaren urrezko gizaldia da: Iratxe ta Oñate'ko ikastetxe nagusietan argitsu dagoz filosofi-irakasleak eta beste ikastetxe nagusi askotan be euskaldunak bereziki argitzen dabe. Esaterako, iraulketa aundia izan ziran Salamanka'n Frantzisko de Bitoria'ren "relectiones de indis" eta beronen eskolako da Domingo Bañez, Arrasate'tik urtena eta Baltasar de Ayala laterri-arte-ko eskubideak sortu ebezen taldekoa, Muskaria'ko Andres, Rada'ko Martin... Frantzisko de Bitoria'k argi agertu eban euskaldunen pentsabidea, eta jarratzailleak ondo zabaldu eben.

Azpilikueta'ko Martin, "Doctor Nabarrus" deritxonak eskola bat asi eta zabaldu eban. Baztan'goa zan, Xabier Santuaren osabea. "Pozik nago euskalduna ta naparra nazelako" esan eban berak. Eta euskerea asko goratzen eban.

Miranda de Arga'koa zan Bartolome de Karrantza, gure Telletxea'k ain ondo aztertu dauan jakituna, I Karlos'en eta II Felipe'ren autor-entzulea eta izkisiñoak zigortua.

Azpilikueta'ren eskolakoak beste filosofo asko dira.

Josulagunen artean be ondo sustraitu zan euskaldunen filosofia : Xabier, bera, Martin Olabe gasteiztarra, Alkala'n eta Paris'en ikaslea eta gero irakaslea, Trento'n izlaria, eta beste asko. Donibane Garazi'ko Juan de Huarte, Bacon eta Descartes'en argitzaille, eta Monteskieu argitu ebana, empirismua sortzeko bide izan zana.

Paris'eko Ikastetxe nagusian ospetsua izan zan Zelaia'tar Juan, XV gizaldiaren azkenean, nominalismoaren sortzaille eta Bitoria'k maixutzat daukana.

Eskoto'ren jarratzailleen artean Urbina'ko Pedro, Berantebilla'koa, Tolosa'ko Frantzisko, Iribarne'ko Juan eta Luis Pueyo.

Asko eta asko dira euskaldun agertzen diran Akino'tarren jarratzailleak.

XIX gizaldia be euskaldun jakitunez baterik daukagu, naizta Iratxe ta Oñate'ko ikastetxe nagusiak galdu betiko. Or dago Zeanuri'ko Juan Jose Urraburu, Gregoriana'n filosofi-irakaslea eta beste asko.

Zelakoa da gure filosofia?

Barrura sartzen dana, sakona, zorrotza, ikuspegi ariñekoa eta eginkorra dala diño, metafisika eta oitura azterketa egiteko ona, errejiño-giro onekoa eta lojika ta ederbidean argia.

Ori baiezteko or dagoz sortu dauzan eskolak: Bitoria'rena esaterako.

BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²